

Liburuak

KRITIKA

Ilar-purea. Daniel Nesquens. Itzulpena: Manu López Gaseni. Irudiak: Elisa Arguilé. Anaya-Haritz. 104 orrialde. 6,85 euro.

Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle



Ospitaleko ezereza

NESQUENSEK eskaintzen digun liburu hau oso berezia da izenburutik bertatik hasita egitura eta istorioetaraino. “–Ingalaterran ilar-purea deitzen diote ezer ikusten uzten ez duen laino trinkoari” (64. orrialdean) diosku Aaronen liburuan; eta, hain zuzen, laino trinko batean sarturik dagoen ume baten istorioak, gogoetak, oroitzapenak biltzen dira liburu honetan. Horrela, ohiko istorio lineal eta sinpleen ordez iragana eta orainaldiaren arteko salto artean ibiliko gara orrietan zehar. Narratzailea ospitalean dagoen mutikoa da, Aaronen ondoko ohean dagoena, eta nobela entrete-nigarri honetan, istorio ezberdinen bidez azalduko dizkigu bertako egoera, nola iritsi zen ospitalera, bere familia eta lagunen berri eta beste mila kontu bitxi.

Ugaritasun horrek bi sentsazio sorrazten ditu irakurlearen-gan. Alde batetik, erregistro aldetik aberastasunarena eta, bestetik, gaien dispersioa. Narratzaileak amarekin edo Aaronekin dituen elkarrizketak kontatzen dizkigu batzuetan –nahiko surrealistik horietako batzuk, Aaronen “euli” hitza berak asmatua dela dioenean bezala, 58. orrialdean–, beste batzuetan gertaera sozialak –herrian ministroak hondakin instalazioa jarri zueneko, esaterako– edo, askotan narratzaileari berari bururatutakoak eta jazotakoak.

Ospitalean daukagu narratzailea, ohean etzanda eta hankan mina duela. Poliki-poliki narrazioa aurrera joan ahala jakingo dugu bizikleta istripu bat izan eta hezurra hautsi zituela zuhaitz baten kontra. Baina informazio hori jasotzearekin batera protagonistaren izaera ere ezagutzen joango da irakurlea, haren gogoeten bidez, eta abenturen edo gertakarien ondorioz –Alberto laguna erreskatatu behar izan zutenean, kasu–.

Ilar-purea nobela hau adabaki askoz osaturiko lana dela esan dezakegu, eta lotze prozesu horretan protagonista dugu hari nagusia, baita ospitaleko gelan dabilen eulia ere –ez da kasualitatea liburuaren lehen eta azken esaldietan euliei buruzko erreferentziak agertzea–. Dispersioa, sakabanaketa, sorrazten du honek guztiak irakurlearen-gan, baina era berean une atsegina igarotzeko aukera paregabea. Broma bat, hitz jokoren bat, aspaldiko abentura, ospitaleko gertakariak... elementu horien guztien artean lor-tzen baita irakurlea entretegituta eramatea liburu hogaie kapituluetan zehar amaierara.

Elisa Arguiléren irudiek, argazkigintza eta ilustrazioaren arteko tonua duten irudiek, ederki islatzen dute ospitaleko giro hori, denbora pasatu behararen sentsazioa, ezer gertatzen ez den giroa... edo gauza asko gertatzen dira konturatu gabe? ■

Gotzon Garateren New York

Elkar argitaletxeak *Ateko bandan* sailean berrargitaratu du Gotzon Garateren *New York, New York* liburua, egilea zendu eta urtebetera. 1988an publikatutako liburuaren edizio zuzendua duzu honakoa, Ainhoa Lendinez Garatek, egilearen ilobak egin baitu testuetako euskararen gaurkotzea. Gainera, Juanra Madariagaren hitzaurrearekin jan-tzirik aurkeztu dute.



New York, New York.
Gotzon Garate.
Elkar.
168 orrialde.
14,50 euro.

Garateren obrarentzat zenbait berrikuntza ekarri zituen liburu honek: batetik, kronikaren generoa landu zuelako, eta, bestetik, euskalki guztietako ekarria bereganatzeko ahalegina izan zelako. Liburu idatzi aitzin, Garatek hemezortzi urte pasa zituen New Yorken, eta zuzenean ezagututako gertakariak dira liburuaren kontatzen. ■

Suzanne Collinsen best-seller distopikoa

Suzanne Collins idazle eta gidoilari estatubatuararen azken nobedadea euskaratu du Koro Navarrok, eta Alberdania argitaletxearen eskutik argitaratu. Urtero, Iparramerikaren hondakinetan 24 gazte behartzen dituzte “Gose Joko” izenekoan parte hartzera. *Reality show* bat da, funtsean, joko hori: pertsona bakarra bizirik atera daitekeen telebistako programa izugarri bat, Kapitolioaren agintearen erakusgarri. Katniss, hamasei urteko neska bat, izango da tiranoen aginteari aurre egiten ausartuko den bakarra. Etorkizuneko mundu distopikoan giroa,

Collinsen liburu honek 200.000 ale baino gehiago saldu ditu mundu osoan. ■



Gose jokoak.
Suzanne Collins.
Itzulpena: Koro Navarro.
Alberdania.
419 orrialde. 19 euro.